

Gobernu Kontseiluaren Adierazpen instituzionala

90 urte. 1936-2026
Eusko Jaurlaritza - Gobierno de Euskadi

2026ko apirilaren 21a

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

Lehendabiziko Eusko Jaurlaritzaren eratzia 1936an funtsezko mugarririk izan zen gaur egun ezagutzen dugun Euskadiren instituzionalizazioan. Lehendabiziko *Euzkadi-ko Jaurlaritzaren* 90. urteurrena dela eta, Gobernu Kontseiluak, gobernu haren egoitza izan zen Bilboko Carlton Hotelean batzartuta, honako Adierazpen Institutuzional hau onartu du. Honekin, oroitzapenezko urte bati hasiera ematen diogu, non, 2026ko ekainetik 2027ko ekainera bitartean, ekitaldi eta ekimen programa bat garatuko den, hamabi hilabetez, Eusko Jaurlaritzaren 90. urteurrena gogora ekartzeko, balioan jartzeko eta ospatzeko.

1. Gernikako Batzar Etxe historiko sinbolikoan sortu zuten 1936ko urriaren 7an historiako lehenengo Eusko Jaurlaritzaren, Euskal Herriko amankomuneko lehen subjektu instituzional eta politikoa. Egun batzuk lehenago, urriaren 1ean, Gorte Errepublikanoek Autonomia Estatutua onartu zuten. Batasuneko gobernuak izan zen hura, Jose Antonio Agirre Lehendakaria buru zela Errepublikarekiko leialak ziren indar politiko gehienek osatua: euskal abertzaleak, sozialistak, errerepublikanoak eta komunistak. Batasuneko gobernu bat, orduko ezohiko gertakarien emaitza, jakina, baina baita, herri-erakuntzan aurrera egiteko formula gisa, elkarrizketarako eta akordioarako joera zuten zenbait jarreraren pertsonal eta kolektiboaren emaitza ere.

Lehendabiziko Eusko Jaurlaritzaren kinka zailenean eta larrienean sortu zen: gerra bat, lurraldearen bi heren matxinatuek militarri okupatuta, eta okupazio frankistatik ihesi Bizkaira iritsi berriak ziren milaka errefuxiatu gipuzkoarrek.

Gerrak erabat baldintzatutako gobernuak izan zen, eta haren lehentasun nagusiak izan ziren Euzko Gudarostea antolatzea eta defentsa militarra gidatzea eta etsaiari aurre egitea –eustea– eta, azken batean, irabaztea –gerra irabaztea– “bakea behin betiko ezarri eta antolatzeko”. Aldi berean, gobernu hura buru belarri aritu zen, ahal zen neurrian, herritarren segurtasuna bermatzen gerra-mehatxuaren aurrian, ordena publikoa mantentzen eta giza eskubideekiko errespetua zaintzen.

2. Gerra-kabinete bat, bai, baina haren gobernu-ekintzak aise gainditu zuen eremu militarra. Gobernu positiboa izan zen, gerra humanizatzen eta herria eraikitzen saiatu zena. Egitura instituzional propio baten oinarriak ezarri zituen, eta botere politikoa baliatu zuena legezketasun demokratikoa defendatzeko, baita, ahal zen neurrian, erretaguardiako biztanleria zibilaren bizitza antolatzeko eta hobetzeko ere.

Eusko Jaurlaritzak eskubide indibidualak eta sozialak, segurtasuna –Er-tzaintza sortu zuen–, ordena publikoa eta bake soziala, erlijio-askatasuna eta kultuarekiko errespetua bermatu zituen. Halaber ekimen eta neurri ugari garatu zituen arlo hauetan: osasuna, hornidura, justizia, ogasuna, industria, garraioa, nekazaritza, hezkuntza –unibertsitate publikoa sortu zuen, Basurtuko Ospitaleko Medikuntza Fakultatearekin batera–, kultura edo euskara. Ikurrinaren edo ereserkiaren bidez, Euskadiren eraikuntza sinbolikoan ere lagundu zuen. Hori guztia bi helbururekin: euskal herritarren bizitza antolatzea eta hobetzea, eta herri-eraikuntzan aurrera egitea. Hainbat hilabetetan, errefuxiatuei ere lagundu zien eta milaka haur atzerriara ebakuatzea antolatu zuen.

Bereziki aipagarria da haren gizarte-politika, zinez aurreratua; indibidualismoaren eta kolektibismoaren, kapitalismoaren eta komunismoaren, erreazioaren eta iraultzaren antipodetan zegoena. Izan ere, ez zeuden lehendabiziko Euzko Jaurlaritzaren ideariotik, programatik eta praxi politikotik kanpo honako kontzeptu hauek: elkarrizketa soziala, jabetzaren funtzio soziala, merkatuko legeen erregulazioa, zerga-sistema progresiboa, edota langileek enpresan duten parte-hartzea. Gobernu haren gizarte-politiken sentiberatasun eta sakontasuna islatzen zuten neurrien adibide dira honako hauek: nekazaritza-erreformaren proiektua, etxebizitzari eta alokairuei buruzko neurriak, edo gerrak behartuta langabezia zeuden langileentzako subsidioa.

3. Jaurlaritza eusko lurrian gobernatzen eman zituen bederatzi hilabeteek porrot egin zuten gudu-zelaiaren, ordea. Ez zen posible izan: fusilak ehiza-hegazkinen aurka, arrantzaontziak gerraontzien aurka, arrazoiaren indarra indarraren arrazoiaren aurka. Davidek ezin izan zuen Goliat garaitu. 1937ko ekainaren 30ean, Turtziozen, Agirre Lehendakariak honako hau aldarrikatu zuen erbestera baino lehentxoago: “Euskal lurraldea konkistatua izango da; Euskal Herriaren arima, ez; eta ez da inoiz konkistatua izango”.

Lehen gobernu haren balantzeak nabarmen gaintzen du porrot militar hura. Era positiboan gobernatzeko ahaleginaren balantzea ere positiboa da. Argi-itzalak egon ziren, zalantzarik gabe, baina argiek berebiziko balioa dute gerra-gau ilunetan.

Jaurlaritza hark bere esanahirik zintzoena eman zion Politikari: ardura, zerbitzua, konpromisoa, desberdinen arteko akordioa, bidezko kausa baten alde buru-belarri aritzea. Gobernuakideek betebeharez, zuzentasunez eta

zintzotasunez jokatu zuten beti; eta burdinazko kemena erakutsi zuten ez-beharrei aurre egiteko. Ideologia oso desberdinekoak izanik ere, elkarrizketa barneratzailea eta izendatzaile komunaren bilaketa defendatu eta praktikatzen zituzten. Eta haren mamia hiru zutabetan oinarritzen zen: printzipioen, konbikzioen eta balioen irmotasunean; guztion ideiak errespetatzean; adostasunaren aldeko jarrera irekia, malgua eta konprometituan.

Duintasuna, legimititate demokratikoa, totalitarismoaren aurkako borroka, bakea, askatasuna, autogobernua, justizia soziala. Hauxek dira lehen Euzko Jaurlaritza haren ondarea osatzen duten balioak. George Steer-ek, The Times egunkari britainiarreko berriemailea eta Euskadiko gerraren lekuko zuzena izan zena, ez zuen zalantzarik izan baieztatzeko euskaldunek bederatz hilabetetan gobernu onaren eta duintasunaren eredu ederra eman ziotela munduari.

4. Gaur egun asaldura handiko mundu batean bizi gara, eta eraldaketa sakonak gertatzen ari dira. Iraultza teknologikoa eta eraldaketa digitala, klima-aldaketa, biztanle-talde handien migrazioak eta lekualdatzeak, askatasun-segurtasun binomioa modu baztertzailan onartzea, giza eskubi-deen urraketa sistematikoa... hauek guztiak egiturazko eraldaketak dira, eta ezagutzen dugun munduari eragiten diote. Gainera, aspaldi honetan, populismoen eztanda eta proiektu antidemokratikoen legitimazioa agertu dira gurean. Ikusten dugunez, historia-hiztegi-tara baztertutako terminoak berragertzen dira, hala nola genozidioa, berrarmatzea edo aldeba-kartasuna. Gorakada belikoa jasaten ari gara eta haren ondorioak igartzen dira gatazken hazkunderan, nahiz estatuen berrarmatzearen hazkunde es-pontzian, hala nola, indarraren legea nazioarteko harremanen prin-tzipio gidari gisa inposatzean.

Testuinguru horretan, Europa pisu espezifikoa galtzen ari da nazioarteko testuinguruan, eta, aldi berean, mendebaldeko demokraziek euren zuzenbi-de- eta ongizate-estatuak kuestionatuta ikusi dituzte.

Noraez hori iraultzekotan, honako hauek gailendu beharko dira: irmotasu-na uste, printzipio eta balioetan; ekintza-batasuna; eta konpromiso zibiko eta politikoa.

5. Lagunduko ote digu lehendabiziko Eusko Jaurlaritzaren ondare egunera-tuak egungo eta etorkizuneko erronkei eta desfioei aurre egiteko beharrez-koa dugun hausnarketan?

Kontua ez datza iragana idealizatzean, ezta jaurlaritza haren hagiografia akritikoa egitean ere. Ezta kontakizun erudito bat egitean ere, ezta kronika bat, ezta historia-ikasgai bat ematean ere. Ezta ere urte horiei buruzko ikerketa eta berrinterpretazio berriak bultzatzean edo haien ezagutza eta hedapen handiagoa sustatzean –ahaleginok, hala ere, egokiak eta laudagarriak izango dira beti–; aitzitik, aitortzan, balioa ematean eta memoria egitean datza.

Memoria hori beti da memoria bizia, eraikitzen ari den memoria, memoria kritikoa, giza eskubideen pedagogia egiten duen memoria, komunitatea eratzen duen memoria, berritzen duen memoria; bizikidetzaren demokratikorako memoria.

Lehendabiziko Eusko Jaurlaritza askatasunaren, demokraziaren eta justizia sozialaren memoria da; duintasunaren, humanismoaren eta elkartasunaren memoria; batasunaren, elkarrizketaren eta akordioaren memoria; autogobernuaren memoria. Printzipio eta balio horiek aldarrikatzen jarraitzen dugu Euskadirentzat, Europarentzat, baita munduarentzat ere. Euskadi berritzailea eta kohesionatua. Europa batua, demokratikoa, hura osatzen duten herriak errespetatzen dituena. Mundu baketsua, bidezkoagoa, gizatiaragoa eta iraunkorragoa.

Gaur egun, 90 urte geroago, komunitate gisa eraikitzen jarraitzen dugu geure burua. Sustrai historiko sakoneko komunitatea, politikoki eta sozialki instituzionalizatua, izateko eta izaten jarraitzeko borondatea duena. Kontua ez da ezer berria asmatzea, baizik-eta geure barruetara begiratzea, geure historiaren ispilura non agian gaur behar ditugun erreferentetako batzuk aurkituko ditugun. Kontua da XXI. mendeko euskaldunentzako bide-orri inspiratzaile bat izatea.

Agirre Lehendakariaren lehen Eusko Jaurlaritza hura gobernu bateratua, plurala, positiboa eta irekia izan zen. Demokraziaren, askatasunaren eta justizia sozialaren printzipioak defendatu zituen, herriaren instituzionalizazioa abian jarri zuen eta haren legitimitateari eusten asmatu zuen gerraren, diktaduraren eta erbestearen une gaitzetan.

90. urteurrena ospatzeko ekitaldiak gonbidapen bat dira euskal herritarrentzat. Aukera ematen digute lehenengo jaurlaritza hura posible egin zutenei ohore egiteko, jaso dugun autogobernu-esperientzia aitortzeko eta, gaur egungo munduan, haiek lehen egunetik defendatu zituzten eta oraindik indarrean jarraitzen duten balioak zabaltzen laguntzeko. Elkarrekin, konpromiso komunitarioaren, zibikoaren eta politikoaren bidez, elkarrizketatik eta akordiotik geure herria, Euskadi, eraikitzen laguntzen jarraitu behar dugu.